

TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 6. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde zuzeneko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Foru Aginduaren proiektu honen xedea da arautzea nola gauzatuko diren Zerga Administrazioari negozio-zifraren zenbateko garbia emateko betebeharrak eta mikroenpresatzat hartzeko baldintzak betetzen diren jakinaraztekoa, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan aurreikusitako ekonomia jardueren gaineko zergaren salbuespenaren ondorioetarako.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da ezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektorre Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluko 6. apartatuarekin bat datorrela, hitzez hitz, foru aginduaren proiektu bat, arautzen dituen jarduera ekonomikoaren gaineko zergarekin lotutako betebeharrak eta, bestalde, aldatzen duena abenduaren 30eko

427/2013 Foru Agindua, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, F-65 eredua onetsi zuena “Aukera eta ukoak. Zentsu bereziak (BEZa). Jarduera hasi aurreko jakinarazpena” izenekoa. Izan ere, arau-proposamenak ez du eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan, eta ez die betebeharrak garrantzitsurik ezartzen hartzaileei. Negozio-zifraren zenbateko garbia eta mikroenpresatzat hartuta egotea datu ezagunak dira jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta erakundeentzat, eta, hain zuzen ere, hainbat zerga-aitorpenetan ematen dira. Baina, hain justu ere, aitorten horiek (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, sozietateen gaineko zergarena eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena) aurkezten ez direnean Nafarroako Foru Ogasunean, F-65 ereduaren bidez eman behar dira datu horiek.

Hori hala izanik ere, foru aginduaren proiektua jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Sinadura jatorrizkoan dago